

EGIN BIDEAK BAKEARI

Azken aldi honetan, behin eta berriro, hemen eta han aldarrikatu izan da, gure gizartean “zerbait” hari dela higitzen, Euskal Herriak mendez mende jasan izan duen egoerari irtenbidea emateko ateak irekitzeko bidean direla edota, gutxienez ere, gure azken urteetako egoera hobetzeko bidean garela, eta halakorik ugari. Guzti horrek pozez betetzen gaitu gure herriarentzat etorkizun baketsua nahi dugunok. Une berean, baina, hor ditugu begien aurrean errealitatea bestetara dela uste izateko zenbait egintza ere. Halakoen artean dramatikoena: presoen sakabanaketaren dramari inolako irtenbiderik eman ez nahi izatea, alderdi politikoak legez kanporatuta jarraitzea, zenbait elkartetako kide ugari defentsarako inolako aukerarik gabe auzipetuak izatea, Nazioarteko Amnistia elkarteak behin eta berriro salatutako torturek eta tratu txarrek irautea, euskarak bereziki Nafarroan eta Iparraldean jasaten diharduen egoera latza eta beste gertakari... Hainbeste kontraesanen artean, berehala sortzen zaizkigu barrenean garraztasuna, etsipena, itxaropenari ateak behin eta berriro ixten dizkion lauso iluna. Eta politikariek hitz eta mintz hasten direnean, berehala etortzen zaizkigu burura lehenago behin eta berriro izandako porrotak. Halakoen artean, besteak beste, trantsizio garaietan gertatutako Hego Euskalerraren zatiketa, geroago Arjeliako elkarrizketan egin zen ahalegin hutsala, oraintsuago Lizarrako mahaiarekin gertatutakoa, eta abar... Kukuak nola jo ohi duen hemen eta han

entzunez, beldur naiz oraingoan ere beste hainbeste gertatu ez ote zaigun, interes gehiegi azaleratzen ari baita hainbaten aldarrikapenetan. Alderdien interesak jarriko ote dira beste behin pertsonen eta herrien (Espainiaren eta Euskal Herriaren eta Frantziaren) interesen gainetik? Demokrazia hitza hortzetik hortzera darabilten horiek zer-nolako demokraziaz ari dira? Euskal Herriak izango ote du bere borondatea argi eta garbi ageriko egiteko aukerarik? Errespetatuko ote da Euskal Herriko gehiengoak erabakitakoa? Historian zehar herrien askapen-bideetan gertatu izan direnak gogora ekarri eta aurrez aurre jarri gero ez zaigu falta ezkorrak izateko ziorik. Halakoetan, egintza historikoak beraiek desitxuratzeraino jokatu izan da sarritan norberaren interesak beste zer guztien gainetik defendatzeraino. Zertan ari naiz, baina? Nor naiz ni inori gomendioak emateko edo ezer irakasteko?. Barnean daramatzadan eta erraiak gori surtan jartzen dizkidaten zenbait gogoetari leihoak zabaldu nahi dizkiet hausnarketarako bideak irekiz, besterik ez! Une historikoan omen gaude! Behin betiko konponbidea lortzeko unean! Halako uneek, alabaina, buruak argi izatea eta zuhur jokatzeko eskatu ohi dute. Hori horrela, guk ere ahalegi-na egin beharko dugu gure gogoak bake-bideetara egokitzeko, etorkizun herrirako prestatzeko. Behar bada, gogoeta-bide izateko asmoz idazten ditudan lerro hauetan, bestelakoak alde batera utziz, behin eta berriro, etengabeki, itaunak egiten jardutea litzateke egokiena: Azken batean nor bere buruari bilatu beharko baitio konponbiderako bidea. Hala ere, baserri giroan bizi izan garenok, ondo baino hobeto dakigu iputargi guztiek baino argi gehiago egiten duela gauerdiko ilargi beteak, ilargiak ere argi hori islatu baino egiten ez duen arren. Bacter guztietan, presa handiegiz, behar bada, bakearen egunsentia atean dugula edo aldarrikatzen diguten une honetan ongi etorriko zaigu gogoetak egitea. Nik horretarako bide izan daitekeen agiri bat eskaini nahi dizuet. Besterik ez bada ere, bake-egarri hori piztu nahirik. Esan bezala, gaurkotasunik galdu ez duelako ekarri nahi dut gogora orain dela 7 urte bostehun

apaiz-erlijiosok baino gehiagok kaleratutako hurrengo hausnarketa hau. Lagundu biezaio norbaiti bake-bideak urratzen.

“ZABALDU BIDEAK BAKELARI

Eskaera hau izenpetzen dugunok, Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñea-Tutera elizbarrutietako apaizek, gure egin-kizun ebanjelizatzailearekin kontsekuenteak izan nahirik eta, Euskal Herrian, justizian eta giza eskubide guztiekiko, demokrazian sakontzearekiko eta adiskidetze sozialarekiko begirunean oinarritutako bakearen eraikuntzan gure apezpikuek plazaratutako baieztapenekin eta burututako ahaleginekin erantzunkideak eta inplikatuak garelarik. Egiaztatzen dugu justizian oinarritutako benetako bakearen eraikuntza gurari orokortua dela eta bake horren lorpena ezin daitekeela interes alderdikoen menpe jarri eta gure Herriko elkarbizitza, gaur egun, larriki gaiztotzen duen era guztietako enfrentamenduegoera gainditu egin behar dela. Uste dugu beste nazio batzuetako bake-prozesuek sortarazitako itxaropideak eta bai euskal eta bai estatal esparruko indar sindikalen, politikoen, mugimendu sozialen eta kulturalen konbergentzia-ahaleginak kontuan hartu beharrekoak direla etorkizuna ukan dezaketen akordioetara iristeko. Sumatzen dugu hiritargoaren baitan arrazoibidezko akordioa erdiestea posible dela zabalki hedatutako konbentzimendua ezinbestean lotuta dagoela harreman, elkarriketa eta negoziazio bide demokratikoekin.

Beraz, bake-prozesua, Euskal Herrian, bideratzekotan:

Gatazkan enfrentatutako parteek, ohorezko bake akordioa erdiesteko, aurrebaldintzarik gabe elkarriketatzeko borondate politiko tinko eta eraginkorra publikoki azal dezatela proposatzen dugu. Beraz honako hau eskatzen diegu, hots, distentsiokeinu eta erabakien bidez gatazka progresiboki indargabetzen saia daitezela. Honela, bada, ETA-k eta IK-k beraien estrategia armatuetan tregua eskaintzea hatetik, eta bestetik, Gobernu

zentralek euskal preso politikoek errebindikazioei eta, oro har, demokraziaren garapenari erantzun positiboa ematea urrats garrantzitsuak dira bake-prozesuari bideak zabaltzeko. Elkarrenganako barremanen gizatartze betea gatazkaren behin betiko gainditzeak soilik ekar dezakeen arren, oraintxegandik azpimarratu nahi dugu konfrontazio honen baiktima guztien eta beraien senitartekoen eskubideei zor zaien nahitaezko solidaritatea eta begirune osoa. Alderdi politikoek, sindikatuek eta mota guztietako mugimendu eta talde sozialek edozein bake-proposamenen elkarritzeta eta eztabaidetarako ekimen bateragarriak, aurrebaldintzarik eta bazterketarik gabe, erabaki eta konbentzimendu handiagoz, hultza ditzaten eskatzen dugu. Aulki Santuari eta bere erakunde pontifikalei, "Justizia eta Bakea" delakoari bereziki, eta gure elizbarruetako Elizei, batipat, gure Herriaren bake-prozesuaren aldeko eginbideak burutu ditzatela galdatzen diegu. Premiazko eginkizuna dugu bakearen eraikuntza. Elkargune-bideak urratu behar ditugu, elkarri entzutea praktikatuta eta justizian eta bakean finkatutako elkarbizitza ahalbidetuko lukeen negoziazioaren oinarrien lorpenean lankide izan. Horretarako elkarritzeta da baliabide pribilegiatu eta gizatiarra. Juan Paulo II.k erabiltzeko deia zabaldu du eta gatazkak gainditu eta bakea eraikitzeko bitartekotzat erabiltzen dutenak goraipatu egin ditu." (Euskal Herria, 1998ko maiatza)

Patxi Uribarren Leturiaga